



# HAUR DANBORRADA

## PROGRAMA ETA ANTOLAKETARAKO ARGIBIDEAK

Apirilaren 26an Laudioko Haur Danborrada ospatuko dugu.

17:30ean Laudio Ikastola, Lamuza, Latorro eta La Milagrosa ikastetxeak eta Azpeitiko Ikasberri Ikastola Herriko plazatik kalejiran abiatuko gara San Prudentzio jaia iragartzeko. Ibilbideak Batzalarrin, Zumalakarregi, Baias, Nerbioi eta Araba kaleak zeharkatuko ditu berriz ere Herriko plazara iritsita erretreta jotzeko.

Ekitaldia amaitutakoan, Aldai plazan, parte hartzaileei askaria banatu zaie. 19:00etatik aurrera, Alberto Acero plazan amaierako jaia ospatuko dugu: umeentzako gunea, diskodantza eta Saharara elkartasun bidaiaria egingo duten ikasleen material salmenta.

Eguraldi txarra eginez gero, Aldai Plazan burutuko da.

### HAUR HEZKUNTZA

Haur Hezkuntzako ikasleak 3 urteko jantokian elkartuko dira. Gurasoek jantzen laguntzera etorri beharko dute bertora.

### LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntzako ikasleak 16:15ean aterako dira gelatik eta Bigarren Hezkuntzako frontoian elkartuko dira. Arropaz aldatu eta danbor zein txaleko banaketa egingo da Ikastolako sarreran.

Familiak kontutan izan beharko dute ikasleen jantzien kargu egin beharko direla tarte horretan.

Lehen Hezkuntzako ikasleek motxila ostegunean jeistea aurreikusten da. LH2koek pizina eguna dute, hortaz, 16:30ean motxila jasotzea eskatzen da.

### IKASTOLATIK JAITSIERA

17:00etan danborradako partaide guztiak Ikastolako aldapan elkartuko



gara Herriko plazara jaisteko.

### MATERIAL ITZULKETA

Txalekoak, danborrak eta makilak danborrada bukatu bezain laster jasoko dira Aldai plazan.

Danborrarien borlak eta maileguan utzitako arropak maiatzaren 9an jasoko ditugu 16:30etik 17:30era Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoen jantokian. Ikaslearen izena idatzi, arren, itzultzeko dakarzuen poltsan.

### ENTSEGU OROKORRA

Ostegunean, 16:30ean entsegu orokorra egingo dugu Ikastolako sarrera nagusian.